

Katalina Tabar Juanche
Etxarri Aranatz, Nafarroa

Aurkibidea

Biografia

Inklusako alaba. Unanuko familia batek hartu zuen zaintzarako. Urte gogorrek igaro zituen bertan, lan eta lan. Lakuntzan ezkondu eta handik urte batzuetara Etxarrira joan ziren bizitzera. 61 urterekin topatu zuen bere benetako ama. Bizitza gogorra izan du.

Zintak

ETX-030

- **Proiektua:** Etxarri-Aranazko ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Labrit Multimedia
- **Data:** 2011-12-02
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Labrit Multimedia

Pasarteak

1. Katalinaren bizitza gogorra

- **Erref:** ETX-030/002
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Katalina Iruñean jaio zen. Amak han abandonatu zuen. 61 urterekin aurkitu zuen bere benetako ama, eta ez zuen ezer jakin nahi izan. Familia batek adoptatu zuen. Bi urte eta erdi zituenean hil zen bere amaordea, eta bere ahizpek Lizarragara eraman zuten beste etxe batera. Lizarragako familiak seme bat zuen. Katalina ez zen eskolara joan, eta sei urterekin soroan lanean zegoen.

2. Bere benetako amaren bila

- **Erref:** ETX-030/004
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:08:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Micaela Navarro eta Miguel Anton ziren bere baserriko gurasoak. Berak bere benetako ama nor zen jakin nahi zuen, eta artzapezpikuarengana joan zen. Azkenean 61 urterekin aurkitu zuen ama. Aberatsa zen, Mexikon bost okindegi eduki zituen.

3. Bahitua bezala egon zen Katalina

- **Erref:** ETX-030/006
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:12:47. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Bahituta bezala egon zen Katalina. Bere amaordea hil zenean ospitalera bueltatu behar zuten, eta, gero, berriz eraman nahi bazuten beste paper batzuk egin behar ziren, baina bera etxe batetik bestera eraman zuten tramiterik egin gabe.

4. Sei urterekin hasi zen lanean

- **Erref:** ETX-030/011
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:25:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Lizarragan sei urterekin hasi zen soroan lanean.

5. Eskola garaia eta klase partikularrak

- **Erref:** ETX-030/012
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Eskolara neguan joaten zen, elurra zegoenean. Andereñoak amari esaten zion oso argia zela eta eskolara joan behar zuela, baina amak lana egin behar zuela esaten zion. Orduan, andereñoak klase partikularrak ematen zizkion gauean.

6. Mantelinak egiten zituen

- **Erref:** ETX-030/013
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Mantelinak egiten zituen katalinak. Brodatzen eta josten ikasi zuen eskolan.

7. Lizarragako andre batekin zuen harremana

- **Erref:** ETX-030/014
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Lizarragako andre bat egunero joaten zen Villafrancara arrautzak eramatera, eta kafea eta horrelako gauzak ekartzen zituen. Katalinak goizeko 08:00etan tren estaziora laguntzen zion, eta ordu bietan berriz bere bila joaten zen, eta, bitartean, soroan egoten zen lanean. Andre horrek asko laguntzen zion, nobioarekin egoten zenean ere ezkutatzen laguntzen zion.

8. Katalinaren ezkontza

- **Erref:** ETX-030/015
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:28:11. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Senarra Lizarragakoa zen. Ez zieten ezkontzen uzten. Lakuntzan ezkondu ziren, eta apaizak (Don Miguel) ordaindu zien ezkontza Katalinak eliza garbitzen zuelako. Haurdun ezkondu zen.

9. Senarraren ofizioa

- **Erref:** ETX-030/017
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:36:43. **Bukatu:** 00:37:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

Etxarriko etxea egiteko bere senarra Frantziara joan zen bi urte lanera, eta bera han gelditu zen bi semerekin. Ondoren, txofer lanetan aritu zen.

10. Etxarriko etxea

- **Erref:** ETX-030/018
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:37:56. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Etxarriko etxea senarra Frantzian zegoen bitartean erosi zuen katalinak. Horretarako sarrera bat ordaindu behar izan zuten. Geroztik, bertan bizi da.

11. Etxarri eta Lizarragaren arteko aldea

- **Erref:** ETX-030/019
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:40:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Etxarrin oso ongi bizi ziren, denekin ongi moldatzen ziren. Lizarraga eta Etxarri artean diferentzia handia zegoen. Etxarri kapitela bezala zen.

12. Lizarragatik Etxarrira joaten ziren erosketak egitera

- **Erref:** ETX-030/020
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:40:44. **Bukatu:** 00:41:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lehen, Etxarrin feria egoten zen. Lizarragan bizi zirenean, Etxarrira joaten ziren erosketa egitera. Bere koinatak denda bat jarri zuen Lizarragan, eta taberna bat ere zabaldu zuten. Baina bestela Etxarrira joan behar izaten zuten eroatera. Gaur egun Lizarragan denetarik dago, baina orduan ezer ez. Sorotik bizi ziren.

13. Soroan ereiten ziren produktuak

- **Erref:** ETX-030/021
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:42:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Soroan patata, garia, artoa eta babarrunak ereiten ziren. Baratzeta zeukanak aza, letxuga... Gaur egun patata ereiten da Lizarragan, baina beste ezer ez. Soroak ez zuen dirurik ematen, eta jendea fabrikara joan zen lanera.

14. Arto-zuritzea

- **Erref:** ETX-030/022
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:42:48. **Bukatu:** 00:44:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Artoa zuritzeko kuadrilla elkartzen ziren, eta kantari aritzen ziren. Mahatsa edo gaztainak jaten zituzten, eta pozik aritzen ziren. Batzuk zuritzen aritzen ziren, eta besteak "porkak" egiten zituzten. Egun bakoitzean etxe bateko artoa egiten zuten.</p>

15. Kantatzen zituzten kantak

- **Erref:** ETX-030/023
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:44:09. **Bukatu:** 00:44:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

Garai hartan, kantatzen zituzten katak normalean elizakoak izaten ziren. Latinez kantatzen zuten.

16. Meza latinez zen

- **Erref:** ETX-030/024
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:44:51. **Bukatu:** 00:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Meza latinez izaten zen garai hartan.

17. Mezak, bezperak, korua...

- **Erref:** ETX-030/025
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:46:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Garai hartan bezperak, mezak, arrosarioa... egoten ziren, eta beti joaten ziren. Etxeko lan guztiak egin ondoren, entsaiora joaten zen. Entsaioak apaizarekin egiten zituzten; sei edo zazpi neska elkartzen ziren.

18. Lehengo jantziak

- **Erref:** ETX-030/028
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehengo amonak denak beltzez eta luzez jantzita ibiltzen ziren. Soroan lan egiteko dena tapatzen zuten, gona luzeak eramaten zituzten, buruan zapia eta txapela, eta eskuak ere tapatuta, eguzkiak ez emateko. Emakumeek ez zituzten galtzak erabiltzen orduan. Jantzi bat zuten astegunetarako, eta beste bat jaietarako. Gauzak asko aldatu dira, gaur egun oso ezberdina da.

19. Bataioak

- **Erref:** ETX-030/030
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:53:42. **Bukatu:** 00:54:41

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Bataioan, garai hartan, familiakoak bakarrik egoten ziren.

20. Jaunartzea

- **Erref:** ETX-030/031
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:54:41. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Jaunartzeak gaur egun ezkontzak bezala dira. Lehen etxekoak egoten ziren, eta ez zen oparirik egiten. Batzuk soineko txuria janzten zuten, beste batzuk tunika beix bat eta mutilak marinerroz.

21. Konfirmazioa

- **Erref:** ETX-030/033
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:57:25. **Bukatu:** 01:00:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Konfirmazioa, orduan, bost urterekin egiten zen. Ondoren, 18-19 urtera pasa zen. Bere seme txikiena ezkontzaren egunean konfirmatu zen, gazte garaian lanean ibili zelako Madrilén. Komunioa egin baino lehen konfirmatzen ziren.

22. Erromeriak

- **Erref:** ETX-030/035
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:01:42. **Bukatu:** 01:03:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Erromeriak San Kiriako egunean eta Ama Birjinaren egunean egiten ziren. San Kiriako egunean, gazte guztiak elkartzen dira ,eta merenduak egiten dira. Ama Birjinaren egunean, umeak eramaten ziren elizara.

23. Etxarriko festak

- **Erref:** ETX-030/036

- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:03:33. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Festak urrian izaten ziren, eta, gero, eguraldi txarra egiten zuelako abuztuko lehenengo igandera aldatu zituzten. Orain, urrian feria egiten da.

24. Lizarragako etxearen izena

- **Erref:** ETX-030/037
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lizarragako etxeak Marianetxea izena du. Bere seme txikia han jaioa zen, eta erosi nahi izan zuen, baina beste batzuk erosi zuten.

25. Lizarragako baserrria

- **Erref:** ETX-030/038
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:06:26. **Bukatu:** 01:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Lizarragako baserrria Irura da. Hura erre egin zen, eta Katalina ezer gabe geratu zen, estatuarentzako geratu zen dena.

26. Gerra garaia

- **Erref:** ETX-030/040
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:10:07. **Bukatu:** 01:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian, beraiek ez zuten behar handirik pasa. Bere aita amerikarra zen, eta beti izan zuten jatekoa.

27. Janaria

- **Erref:** ETX-030/041
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 01:10:53. **Bukatu:** 01:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Normalean taloa jaten zuten. Txerri bat hiltzen zuten urtero, eta jatekoa izaten zuten urte guztirako. Olioan kontserbatzen zuten janaria.

28. Estraperloa

- **Erref:** ETX-030/042
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:11:23. **Bukatu:** 01:14:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Lizarragan ez zen estraperlorik egon. Ogia egiteko Lakuntzaraino joaten ziren garia eramatera gauez. Guardia zibila egoten zen kontrolatzen. Harrapatzen bazituzten dena kentzen zieten.

29. 19 urterekin lehenengo arrautza jan

- **Erref:** ETX-030/044
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:14:34. **Bukatu:** 01:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Bere lehenengo arrautza 19 urterekin jan zuen. Soroan zegoen izebarekin, eta bijilia zen.

30. Etxeko oiloak

- **Erref:** ETX-030/045
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:15:26. **Bukatu:** 01:18:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Etxean oiloak zituzten. Behatza ipurditik sartzen zioten zenbat arrautza emango zituen jakiteko. Behin bere lagun batek arrautza bat lapurtu zuen eta istorio hori kontatzen du.

31. Etxean jasotzen zuen tratua

- **Erref:** ETX-030/046
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:18:01. **Bukatu:** 01:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxera joateko beldurrez egoten zen Katalina, han zerekin aurkituko ote zen. Esplotatu egiten zuten etxean. Denak siestan zeudenean, bera langostak harrapatzera bidaltzen zuten erre kara, eta goiz guztia soroan lanean egon ondoren gainera.

32. Hilekoa

- **Erref:** ETX-030/047
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:20:40. **Bukatu:** 01:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Hilekoa 19 urterekin jaitsi zitzaion; etxekoei kontatu zien, baina ez ziren ezertaz arduratu. Hurrengo egunean, garia ereitera joan zen sorora, eta tripako min handia eduki zuen. Erabiltzen zituen trpuak gauean garbitzen zituen inork ikusi gabe.

33. Aanaia eskolara 18 urte egin arte

- **Erref:** ETX-030/049
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 01:22:41. **Bukatu:** 01:23:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Katalina ez zen eskolara joaten, soroan aritzen zen lanean. Etxeko semea aldiz, 18 urte egin arte egon zen eskolan, eta sekretarioari laguntzen egoten zen sekretarian.

34. Dotrina euskaraz eta erdaraz

- **Erref:** ETX-030/050
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:23:19. **Bukatu:** 01:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Eskola erdaraz izaten zen. Dotrina elizan euskaraz eta eskolan erdaraz izaten zen, eta berak denak ikasten zituen. Oso argia zen, baina ezin izan zuen ikasketarik eduki, soroan lan egin behar zuelako.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com